



**Genero indarkeriaren aurka.** Azaroaren 25a emakumeen aurkako indarkeriaren eguna izanik, kontzentrazioa egin zuten igande eguerdian Okendon. Bertan, Emakumearen Zentro Zibikoko kideak zein herriko politikari batzuk bildu ziren hainbat herritarrekin batera. Kolore morea izan zen nagusi plazan, eta 50 lagun inguruk 15 minutuko kontzentrazioa egin zuten emakumeen aurkako indarkeria gaitzesteko. Asteburuko kontzentrazioa ez da ekintza bakarra izan, aste osoan zehar prestatu baititu lanketa desberdinak Emakumeen Zentro Zibikoak, tartean, bideoforuma, hitzaldia, jokoak, irriterapia... Gainera, asteburuko ekintzen barnean "Novias Blancas" antzerkia eskaini zuen ostiralean Zentro Zibikoko antzerki taldeak Manuel Lekuona kultur-etxean eta ikusleek gozatu ederra hartu zuten umorez eta genero indarkeriaren aurkako mezuz beterikoa izan zen obra ikusten.

### 3 GIZARTEA

#### Auzoz auzoko parte-hartze bilerak aste honetan izango dira

Zabaleta eta Oztarango bizilagunekin izan dira parte-hartze bilerak haien proposamenen erantzunak aurkezteko. Udalak adierazi duenez, laugarren urrats honetan murgilduta daude jada eta harrera ona izaten ari dira teknikariek proposatu dituzten irtenbideak. Aste honetan jarraituko dute bilerek, 19:00etan hasiko dira denak.

### 4 KULTURA

#### Literatur lehiaketako sariak banatu ziren larunbatean

Mende laurden baino gehiago du Lasarte-Oriako lehiaketak. Helduen kasuan XXVI. edizioa izan da aurtengoa eta haur eta gazteek XXV.a egin dute, urtebete gutxiago baitu. Aurtengoa, guztira, 621 lan aurkeztu dira, 482 haur eta gazteen mailan eta gainontzeko 139ak helduenean. Larunbatean egin zuten sari-banaketa, bi poesia errezitaldiz lagunduta.



### 5 GIZARTEA

#### Parte-hartze buzoiak jarri dituzte eraikin publikoetan

Azken hilabeteotan parte-hartze proiektuaren harira, Alaitz Mendizabal batzorde buruak zazpi udal eraikinetan jarriko postontziak aurkeztu ditu. Postontzi hauek herritarrentzako parte-hartzeko erreferentzia izango dira aurrerantzean eta bertan mota guztietako ekarpenak jasoko dira: herritarren iritzi, proposamen eta kezakak besteak beste.



**ALCAR VENTANAS**

*Etorri gure denda berrira,  
Plaza Oriamendi, 2.  
(Lehengo Doble J)*

Zuregandik hurbil

Tel: 943 37 78 68  
www.ventanasalcar.com

**ERAKUSKETA**  
Plaza Oriamendi, 2  
(Lehengo Doble J)  
20160 - Lasarte-Oria - Gipuzkoa

Tel: 943 37 78 68  
tienda@ventanasalcar.com  
www.ventanasalcar.com  
www.facebook.com/VentanasAlcar

**TAILERRA**  
Ibaiondo, 4  
erdisotua 5-A










Jarrai gaitzazu Facebooken!  
gure jarraitzaile artean,  
laister hasiko gara  
opariak banatzen

Me gusta

## Adituak dio



**Itziar Elgezabal**  
Jalguneko begiralea

**A** benduaren 3an urritasuna duten pertsonen nazioarteko eguna ospatzen da. Hiru dira denok bertan parte hartzeko edo egoteko arrazoiak. Lehenik, nor ez da noizbait hanka motz sentitu? Bigarren arrazoa, beste nazioarteko egunak bezala aldarrikapen egun bat da. Azkenik, guretzat ospakizun bat da eta herritarrak gozatzeko festa antolatu dugu abenduaren 1ean.

Adimen, entzumen, ikusmen urritasunak eta abar luze bat dira egun entzuten direnak. Baina, badira ere beste hainbat mota burura ez datozkigunak urritasun hitza entzutean, hala nola, sozializatzeko arazoak, memoria eskasa... Jakinda denok ditugula urritasunak edo hain nabarmenak ez direnean, deitu diezaiokegu gabeziak, gure galdera da: Zergatik ez gara bata besteari laguntzen urritasun horiek hain nabarmenak ez izateko? Hots, inguruko pertsonen urritasunak gutxitzen saiatzen bagara, denon egunerokoa errazagoa eta aberasgarriagoa izango da herrian.

Oso pozik gaude Lasarte-Oriako hainbat elkarte eta norbanakoez izandako jarrerarekin. Askok beraien ekintzen parte izatera gonbidatu gaituzte. Elkar lan edota elkar bizitza hau zoragarria izan da, behin eta berriz eskerrak eman nahi dizkizuegu. Ekintza horietan gure gaitasunak urritasunen gainetik nabarmendu direla uste dugu. Eta orainoan animatzen zaituztegu eguna gurekin ospatzera. Kultur etxeko emanaldia ikustera etorri, kalejiran parte hartu, ezkutaketara jolastu eta tripa txokolataarekin bete baino lehen gure abestiarekin sentitu, pentsatu eta dantzatu!!!

## Pausoka-pausoka, bide oparoa

**A** benduaren 3a euskaren eguna izateaz gain urritasuna duten pertsonen nazioarteko eguna ere bada. Iaz Jalguneraren 20. urteurrena zela eta askotan izan genituen Txintxarri elkarteak kideak.

Albiste izan ziren gogoz egin zutelako lan ekintza mordo egin eta herriko elkarte ezberdinekin elkarlanean hauek burutzea lortu zutelako. Atzera begiratuta, urte luze hauetan, elkarte sortu zenetik, ibilbidea ez da beti erraza izan guraso zein elkarte kideentzat baina egun gauzak onerako aldatu dira eta merezitako aitortza egin behar zaie guztiei horregatik.

Dagoeneko herrian antolatzen diren ekintza nagusietan egoten dira Jalgunekoak, Maratoian euren abestia dantzatu

genuen denok, esketx oso dibertigarriak eskaini zizkiguten oholta gainean, pailazoezin dantzan ere fin ibili ziren... Herriko gainerako elkarteetan ere lagun onak dituzte Jalgunekoak eta euren festatan parte hartzeko gonbidapena jasotzen dute esker onez.

Kasu honetan gonbidapen berezia Jalgunekoekin egiten digute Lasarteoriatar guztioi, izan ere, abenduaren 1erako ekintza egitarau polita antolatu dute. Egun berezia hau ospatzeko Manuel Lekuonan jaialdia egingo dute eta Okendo plazan, joko eta txokolata handia. Ahalik eta jende gehien bildu nahi dute beraz, gogoan izan abenduaren 1ean Gure Ametsako lagunekin hitzordua dugula Okendon 19:00ak aldera. Ez ahaztu!

## Hitz eta pitz

## Zer iruditzen Jalguneko egiten duen lana?



**Juan Luis Murua**

Lehen harreman zuzena izan nuen taldearekin, aspaldian ez, baina egiten duten lana oso ona da, batez ere familiarizatzen. Parte hartzaileentzat beraientzat ere oso egokia da herrian hainbat ekintzetan parte hartzeko egiten duten guztia. Beharrezkoa eta interresgarria ikusten dut beraientzat, familiarizatzen eta gizartearentzat ere bai. Denontzat. Nik uste denoi egiten digula ondo.



**Isabel Pellejero**

Ondo dago beraientzat eta familiakoentzat ere bai, behar dute laguntza eta. Azken finean motibazioa da, altxatzeko, elkartzeko... beraien artean harremanetan jartzen dira, buelta bat ematen dute monitoreekin, herriko bizitzan parte hartzen dute... Beharrezkoa da. Meritua dute monitoreek, prestatuak daude eta lan ona egiten dute. Hori bai, pazientzia beharko dute.



**Aitziber Zulaika**

Interesgarria iruditzen zait Jalgunekoekin egiten dutena, beharrezkoa da. Ondo dago urritasuna duten pertsonen familiarizatzen eta beraientzat ere bai. Ikusi dezatela eurak ere norbait direla, gauzak egiteko eta parte hartzeko gai direla. Ez daitezela inola ere bazterturik sentitu. Facebook-eko lagunak ditut. Lan ona egiten dute beraiekin monitoreek, asko laguntzen diete.



**Eulogio de la Serna**

Oso lan interesgarria da beraientzat, tabernetan ikusten ditut kokakolaren bat eskatuz eta oso jatorrak dira. Lagundu egin behar zaie, beraientzat ekintzak antolatu, etxetik atera... Ezin dira bazterrean utzi, penagarria litzateke, izan ere, polita da ikustea nola gozaten duten eskenatokiaren edo kalejiran. Monitoreak ere oso jatorrak dira eta asko laguntzen dute: dantzan erakutsi...

## Iruditan

## Pausoka pausoka



1991ko irudian haur, guraso eta begiraleek egindako ospakizuna.

21 urteko ibilbidean lanean jarraitzeko gogoarekin jarraitzen dute Jalgunekoekin. Gurasoen inplikazioa urte hauetako ibilbidean oso garrantzitsua izan da eta euren lana ezinbestekoa izan zen hastapenetan batez ere elkarte martxan jarri, lokala lortu eta ekintzak antolatzeko. Euren indarrak batu zituzten seme-alabek aisialdirako taldea izan zezaten, euren ametsa zen. Udalak elkarrean lana aitortu nahi izan zuen San Pedroan hau omenduz. Pausoka pausoka bidea egin eta lagunak gehitzen joan zaizkie, euren presentzia dagoeneko ezinbestekoa bihurtu da herriko ekintza nagusi guztietan.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



**Lasarte-Oriako Udala**  
Euskara Batzordea



**EUSKO JAURLARITZA**  
KULTURA SAILA



**GFAko Kultura eta Euskara Departamendua**



## PARTE-HARTZEA

# Auzoz auzo irtenbideak azaltzen

Parte-hartze prozesuko bilerak izango dira auzoetan aste osoan zehar



Irudian, Oztarango bizilagunekin Lanbide-eskolan egindako parte-hartze bilera.

**Auzoz auzoko parte hartze prozesua aurrera doa. 4. pausoa hasi zen ostegunean eta Zabaleta eta Oztarango bizilagunekin izan dira haien proposamenen erantzunak aurkezteko. Udalak adierazi duenez, harrera ona izaten ari dira teknikoek eskaintako irtenbideak.**

## TXINTXARRI

Zabaleta eta Oztarango bizilagunek auzoz auzoko parte hartze prozesuaren laugarren pausoa eman dute.

Udalak aurreko bileretan haiek proposatutako ideia, kezka eta iradokizunei irtenbide teknikoak eman eta oste-

guna eta ostiraleko bileretan erantzun horien berri eman zitzaizkien.

Gauzak erabakitzeak aukera ere izan zuten, hala nola, Udalak jarriko dituen iragarki-taulak auzoetan non kokatu.

**Aste honetako bilerak**

Aste honetan zehar bilere-

jarraituko dute auzo ezberdinetan. Gaur, Basaundi eta Oriako bizilagunen txanda izango da, bilerak Basaundiko auzo elkarteetan izango dira.

Asteartean, Zumaburu eta Goikaleko herritarrek Udal eskualtean izango dute bilerak; asteazkenean, Garaikoe-txea ikastolan Atsokarreko auzotarrek bilduko dira; ostegunean Sasoeta ikastetxean Sasoeta auzoaren txanda izango da eta ostiralean erdiguneko bizilagunak Manuel Lekuona kultur-etxera hurbildu beharko dira.

Bilerak guztiak 19:00etan hasiko dira.



Larunbatean Sortuk egindako bileraren une bat.

## SORTU

**Sorturen oinarri ideologikoak finkatuz**

Sortuk abiatu du eratze prozesua, asteburu honetan hasi eta otsailaren 23ra arte luzatuko den ibilbideari ekin dio herriz herri. Guztira, Euskal Herriko 293 herri eta auzotan egingo ditu biltzarrik. Lasarte-Orian, larunbata goizean bildu ziren Villa Mirentxun euren burua ezkertiar eta independentistatzat duten 50 herritar inguru alderdi politiko berriaren oinarri ideologikoen inguruan eztabaidatzeko. Hurrengo bilera abenduaren 15ean izango da, Villa Mirentxun 9:30tan.

## HITZALDIA

**Etxe-laguntzaren berri ematen**

Udaleko Gizarte Zerbitzuak, Inmigrazioa, Kooperazioa, Enplegua eta Emakumea Departamentuak antolatuta, ostiralean, etxe-laguntza zerbitzuaren berri eman zien Biyak Bat jubilatuen elkarteetan bildu ziren herritarrei.

Etxez etxeko laguntza zerbitzuaren nondik norakoak azaldu zituzten, baita herritarrek zerbitzua nola eska dezaketenean ere.

## HEZKUNTZA

**Batxilergoko tituluak**

Lasarte-Usurbil Institutuak 2010-2011 ikasturtean Batxilergoko ikasketak amaitu zituzten ikasleei jakin arazten die tituluak eskuragarri dituztela ikastetxeko idazkaritzan.

**Jaiotzen XX. Lehiaketa martxan da**

Danok Kide elkarteak XX. jaiotzen lehiaketa antolatu du eta parte hartzeko oinarri argitaratu eman ditu.

Banaka edo taldeka hartu daiteke parte lehiaketan, baina lan bakarrik aurkeztuz. Jaiotzarekin batera, gutunazal batean egileen izenak sartu eta azalean parte-hartzaile edota taldearen adina idatzirik entregatu behar da.

Antolatzaileek azpimarratu dute, jaiotzak, gehienez, 80x60 cm-tako neurriak izan behar dituela eta, batez ere, ez dela onartuko hondo sendorik ez duen jaiotzarik. Aurreko urte-tako lehiaketara aurkeztutako proiekturik ere ez da hartuko.

Lanak ikusi eta irabazleak aukeratu dituen taldeak, lehiaketako sariak banatu gabe utzi ditzake, kalitatezkoak ez direla uste badu.

**Mailak eta sariak**

Lau maila bereiziko dira sarie-tan. A mailan, 6 eta 9 urte bitarteko haurren irabazleak

60 euro eta trofeoa jasoko du eta bigarrenak, 40 euroko saria. B mailan, berri, lehenengo saritua 70 euro eta trofeoa eta bigarrenak, 50 euro. 14 urtetik 17rako tarte-ko gazteen C mailan, 90 euro eta trofeoa izango ditu lehenak, eta bigarrenak 60 euro. Azkenik, 18 urtetik gorako D mailako lehenengoak 120 euro eta trofeoa izango ditu, eta bigarrenak 90 euro.

Saririk ez lortu arren, kontsolazio sari bat jasoko dute onartutako lan guztien egileek. Elkarteak, 10 euro emango ditu aurkezten den jaiotza bakoitzeko.

Gauzak honela, jaiotzak abenduaren 20 eta 21ean, arratsaldeko 17:00etatik 19:00etara aurkeztu behar dira, Danok Kideko egoitzan, Blas de Lezo kaleko 11-13 zenbakian.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez, jaiotzak ikusgai izango dira San Pedro parrokiaren eta saribanaketa urtarilaren 1ean izango da.



Abdón Fernández Semblante Andaluz-eko lehendakaria Don Ramon apaiz ohia alboan duela, omenaldia egin zioten bigarren honi.

**Don Ramoni omenaldia Semblante Andaluz-en.-** Elkarte gastronomiko eta kulturalako kideek omenaldi xumea egin zioten 1986 eta 2004 urte bitartean Arantzazuko Ama elizan apaiz izan zen Don Ramoni. Semblante Andaluz-eko presidente Abdón Fernándezek esker oneko hitzak izan zituen harentzat eta amantala zein errezeta liburua bat oparitu zizkion. Semblante Rocierokoek gainera "salve" bat kantatu zioten eta Ramonek, "hunkituta", bihotzez eskertu zien. Bazkarian, Barrio alkatea zein Andonegi eta Murua herriko apaizak izan ziren. Bestalde, elkarteak zuzendaritzan errelebo aldaketa izango dela eta, Abdón Fernándezek azken agurra egiteko aprobetxatu zuen 120 lagun bildu zituen atzoko bazkaria: "Mila esker guztioi zuzendaritzari eman diozuen laguntzagatik, eta oraingo zuzendaritza berria babesten jarrai dezazuela eskatzen dizuet guztion artean Semblante Andaluz eta Lasarte-Oria eraikitzen jarrai dezagun".



Haur, gazte eta helduen literatur lehiaketako saridun guztiak diploma eskuetan dutela, irribarretsu eta pozarren ageri dira denak, Barrio alkatea, Nogales kultura-zinegotzia eta Xabier Goitia kultura-teknikariaren alboan.



Hitzaldi aretoa jendez gainezka, poesia errelatoak entzuten.

## Literatur lehiaketa amaitu da

Helduen XXVI. edizioa izan da aurtengoa eta haur eta gazteek XXV.a egin dute

**Mende laurden baino gehiago du helduen Lasarte-Oriako Literatur lehiaketak, eta bat gutxiago haur eta gazteenak. Aurtengoa, guztira, 621 lan aurkeztu dira, 482 haur eta gazteen mailan eta gainontzeko 139ak helduenean. Larunbatean egin zuten sari-banaketa, bi poesia errezitaldiz lagunduta.**

Jon ALTUNA EGITEGI

Urtero bezala, aurten ere literatur lehiaketaren sariak banatu ziren larunbata eguerdian kultur-etxean. Itxura ederra zuen hitzaldi aretoa, jendez gainezka baitzegoen sariketa eta poesia errezitaldiak ikusteko gogoz.

Pablo Barrio alkatea, jakina denez, idazle lanetan ere aritua da, eta zorionak eman nahi izan zizkien parte-hartzaile guztiei, sarituak izan edo ez.

Haren hitzetan, garrantzitsua "idaztea" da, edozein sariren gainera. "Idazleak ez ditu soilik obrak sortzen, bere

burua ere sortzen du idazten duen bakoitzean", esan zuen Barriok. Era berean, idazle gazteenganako "inbidia" sentitzen zuela ere aitortu zuen.

Orain arte idaztera ausartu ez denari ere zuzendu zitzaion alkatea, idazten hasteko "sekula" berandu ez dela argudiatuz; bere kasua jarri zuen adibidetzat: "Ni 43 urterekin hasi nintzen idazten, beti baitago idazten hasteko momentu egoki bat, idaztera bultzatzen gaituen hori edozein arrazoi izanda ere".

**Poesia errezitaldiak**

Bestalde, ekitaldiak irau zuen bitartean, musikaz lagunduta-

ko bi poesia errezitaldi eskaini zituzten hitzaldi aretoan. Joseba Pascualek izan zuen Roberto Yabenek konposatutako "Sehaskan" eta "María" obrak kitarra elektrikoaz interpretatzeko ardura. Udal musika eskolako irakasle eta ikaslea dira biak hurrenez hurren.

Aipatutako obren gainean errezitatu zituzten bi poesiak, bat euskaraz eta bestea gaztelaniaz. Lehen lana, Ekhiñe Eigurenen "Taupadak" izan zen eta Aitor Tejedor herritarrak maisuki ahoskatu zuen.

Ondoren, Arantza Garcia-ren "De regreso" obra errezitatu zuen Noemí Fernandezek, entzuleen arreta lehen momentutik bereganatuz.

Amaitzeko, Boris Nogales-ek 2013. urte hasieran literatura-lehiaketaren berri emango dutela adierazi zuen eta herritarrei dei egin zien hurrengo urteko lehiaketetan parte-hartzeko.

### Lasarte-Oriako XXVI. Literatura Lehiaketa

#### Euskara

##### Poesia

Ekhiñe Eguiguren, "Taupadak"

##### Mikrokontakizunak

A kategoria (1982 eta 1996 urte bitartean jaiotakoak)

Olatz Mitxelena, "Orri kiribildua"

B kategoria (1982 urtea baino lehen jaiotakoak)

Ruben Gonzalo Ledesma, "Tipulak"

#### Gaztelania

##### Poesia

Mamen Hernandez, "Bajo el cielo de orugas"

##### Mikrokontakizunak

A kategoria (1982 eta 1996 urte bitartean jaiotakoak)

Arantza Garcia, "De regreso"

Lasarte-Oria saria: Elisabet Herrero, "Utopia"

B kategoria (1982 urtea baino lehen jaiotakoak)

Carlos Fernandez, "Hermanos de Sal"

### Lasarte-Oriako Haur eta Gazteen XXV. Literatur Lehiaketa

#### Euskara

A kategoria (2003an edo ondoren jaiotakoak)

##### Ipuina

1.- Ane Torres, "Egun bat elurretan"

2.- Naia Carretero, "Katuen misterioa"

3.- Tasio Ilarramendi, "Munduari bira eman zion mutila"

B kategoria (2000an, 2001ean edo 2002an jaiotakoak)

##### Ipuina

1.- Ane Sanchez, "Nere kontakizunak"

2.- Ane Miren Espinosa, "Zergaitik gara horrelakoak? Ez dut ulertzen!"

3.- Nahia Arruti, "Pentsamenduen liburua"

C kategoria (1997an, 1998an edo 1999an jaiotakoak)

##### Ipuina

1.- Leire Chorro, "Ostadarra"

2.- Jone Arroyo, "Asteburuko abenturak"

3.- Uxue Aristimuño, "Albert-en ipuinak"

#### Gaztelera

A kategoria (2003an edo ondoren jaiotakoak)

Ez da lanik aurkeztu

B kategoria (2000an, 2001ean edo 2002an jaiotakoak)

##### Ipuina

1.- Naroa Saizar, "La aventura del orfanato"

2.- Aaron Ancizar, "Aventuras de un pececillo"

3.- Nahia Urdaleta, "Las chicas tambien pueden jugar a futbol"

C kategoria (1997an, 1998an edo 1999an jaiotakoak)

##### Ipuina

1.- Ainhoa Faustino, "No encuentres la falta encuentra el remedio"

2.- Maialen Ormazabal, "Alphabet"

3.- Leire Chorro, "Agua ardiente"

##### Poesia

1.- Xabier Lahidalg, "Beethoven"



# Parte hartzea sustatzeko postontziak

Inauterietako gaiari buruzko proposamenak parte-hartze postontzian jasoko dira

*Alaitz Mendizabal parte hartze batzorde buruak zazpi udal eraikinetan jarritako postontziak aurkeztu ditu. Postontzi hauek herritarrentzako parte-hartze erreferentzia izango dira aurrerantzean eta bertan mota guztietako ekarpenak jasoko dira, herritarren iritzi, proposamen, kezka besteak beste.*

## Maider AZURMENDI

Azken hilabeteetan parte hartze prozesu ezberdinak jarri ditu martxan Udalak. Antolatutako bileretara joan ezin izan duten herritarrentzat tresna ezberdinak jarri nahi izan ditu eskura udalak euren iritziak ere jasotzeko helburuarekin. Horretarako erabili da esaterako partehartzea@lasarteoria.org helbide elektronikoa.

"Hala ere beharrezkoa ikusten genuen beste tresna bat, oraindik gehiago erraztea herritarrei euren iritzia edo proposamenak egiteko bidea eta kezka horretatik jaioa da postontzien ekimena" azaldu du Mendizabalek. Izan ere, "parte-hartzeak ez luke logikarik izango herritarrek elkarlan bat edo informa-

zio trukea egongo ez balitz. Ideia honetan oinarrituta ere jarri dugu martxan Parte-hartze postontzia".

Postontzi hauekin herritarrek bi zentzutako komunikazioa erraztu nahi da, herri eta udalaren erlazioan bide bat gehiago ireki.

Guztira zazpi postontzi egin dira eta herriko eraikin publikoetan kokatu dira Udaltxean, Manuel Lekuona Kultur etxean, kiroldegian, Osasun etxean, Gaztelekua, Zentro zibikoan eta Villa Mirentxun.

Postontziek diseinu erakargarria dute eta berehala ezagutuko dituzte herritarrek izan ere, "komikietako bokadilo iturakoak egin ditugu jendeak errez identifikatu ahal izateko eta era berean hitza hartzearen sinbolo zuzen moduan".



Alaitz Mendizabal Manuel Lekuonan dagoen postontzian iradokizuna sartzen.

## Inauteriak

Postontzi hauek erabiltzen hasteko aitzakia ere eman dute dagoeneko parte hartze departamentutik.

Udalak, 2013. urteko Inauteriei begira, gaia hautatzeko herri galdeketa bat martxan jarri nahi izan du horrela "guztiok gure iritzia emateko aukera izan dezagun eta inauterietarako motorrak berotzen

hasteko" adierazi du Larrait Sarobek.

Herriko etxe guztietara helduko da proposamenak biltezeko eskuorria eta eraikin publikoetan ere eskuragarri egongo da. Honetan bakoitzak bere proposamena egiteko aukera izango du eta ostean, herriko eraikin publiko guztietan kokatuta dauden parte-hartze postontzietan utzi

beharko da proposamena, hauek jasotzeko azken eguna abenduaren 16a izango da.

Ideia guztiak Inauterien antolaketarako berriro ere martxan jarriko den parte-hartze forora eramango dira, eta bertako parte-hartzaileek, konpartsa ezberdinak ordezkariek, udaletxeko festen saila eta parte-hartu nahiko lukeen herritar oro, erabakia hartuko dute.

Proposamenak Internet bidez egiteko aukera ere egongo da. Horretarako, interesatuta legokeenak [www.lasarteoria.sarean.eu](http://www.lasarteoria.sarean.eu) web-gunera jo beharko luke.

"Gaia herri guztia tematika berdinez mozorrotzeko da; beraz, gogorazi nahiko genuke proposamenak orokorrak izan beharko direla gai berdinarekin inguruan mozorro eta ideia ezberdinak izatea ahalbideratu behar dutela".

Horrela herritarrak euren iritzi eta proposamenak egitera deitu nahi izan dituzte udal ordezkariek eta parte-hartze teknikariak.

**EUSKARAZ BIZI NAHI DUGU**

abenduaren **16an**  
**donostia**  
**17:00etan**  
**anoeta estadiotik**

**manifestazioa**

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN  
**KONTSEILUA**

## LABURRAK.-

## IGERIKETA.-

## Eizmendi atleta hirugarren izan zen Irungo krosean

Irungo Hiria XLV. Krosa izan zen azaroaren 18an, igandea. Honetan Landaberri ikastetxe-ko eta LOKEko atletak izan ziren lasterka.

Atleta gazteentzat denboraldiko zelaiko lehen krosa izan zen eta aurreko egunetako euria zela eta, Txingudiko ikastolak prestatutako ibilbidean sortu zen lokatzari aurre egin behar izan zioten gaztetxoek.

Ederki gainera, alebin nesken mailan Landaberriko June Eizmendi hirugarren izan zen eta Ainhoa Heredero eta Nerea Eugi ere lehen hogeiren artean amaitu zuten lasterketa.

Honi esker, Landaberri ikastolak ikastetxe eta klubon sailkapenean bigarren postua eskuratu zuen.

Eta atleta txkiez gain, jubenil eta helduen mailan ere herriko parte hartzea izan zen. Jubenil mailan, Sergio Garcia Sierra hamazazpigarren iritsi zen helmugara eta helduen mailan, berriz, Jon Altuna Egitegik lasterketa utzi behar izan zuen.

## OHARRAK.-

## Ostadarreko loteria

Ostadar Saiarre Kirol Taldearen gabonetako loteria elkartearen bulegoan, Geltoki 25, eta Aldatzekua tabernan salgai dago dagoeneko eta nahi duenak eskuratu dezake. Kirol taldearen zenbakia 65667 da.

## PILOTA.-

## Hirugarren mailara jaitsi dira Intzako seniorrak

Intzako II. mailako bikoteak ez zuen zorte onik izan ostegunean Arrasateko Uarkape kiroldegian jokaturako partidari, 22-3 galdu zuen Arrasateren aurka eta hirugarren mailara jaitsi da.

Joxe Felix Solano Intza pilota taldeko arduradunak azaldu digunez, "19 tanto egin behar genituen maila mantentzeko eta zaila zegoen, baina oso zorte txarra izan genuen."

Izan ere, 4-0 galtzen zihorazela, Aitor Aranburu aurrerariak airez sakea eraman nahian behatza atera zuen eta urgentzietara eraman behar izan zuten.

Atzelariak bakarrik jokatu behar izan zuten eta ahal bezala amaitu zuten partida. "Ez da ohikoa ordezkorik era-

## Igerilariak txapelketetan aurrera

Tolosa eta Mitxelena Espainiako txapelketan izango dira abenduaren 1ean

**Buruntzaldea IKT-ko Tolosa eta Mitxelena Espainiako txapelketarako prestaketarekin aurrera doaz. Lehengo asteburuan, Mikel Esnalekin batera Euskal Ligako lehen proban izan ziren lehian. Tolosak ederki egin zuen igeri.**

Itsaso Tolosa, Haitz Mitxelena eta Mikel Esnal, Santurtzin izan ziren, azaroaren 17an, Euskal Zirkuituko 1. jardunaldian.

Borja Apeztegia entrenatzaileak azaldu zuenez, "marka pertsonalik lortu ez bazuten ere Itsaso eta Mikel oso txukun aritu ziren".

Bai Itsasok eta baita Esnalek aurreko denboraldian forma egoera onenean zeudenean lortutako markak urte hasieratik berdintzea lortu zuten Santurtziko proban eta "horrek aurtengo denboraldian marka onak lortu ditzaketela pentsarazten digu," azpimarratu du Apeztegiak.

## Probak

Itsaso Tolosak 100 eta 200 bizkar probetan parte hartu zuen eta bietan igerileku laburreko bere marka onenetan igeri egin zuen.



Esnal, Tolosa eta Mitxelena Santurtziko Euskal Ligako jardunaldian igeri egin zuten.

"Nahiko erraztasun eta frexkura handiarekin egin zuen igeri eta Espainiako Neguko Absolutuen Txapelketan bere markak hobetzeko moduan izango dela uste dugu," aipatu du Borja Apeztegiak.

Mikel Esnal ere bere marka onenetatik oso gertu ibili zen 50 libre eta 100 libre probetan.

Hala ere, Buruntzaldea IKT-ko entrenatzaileak aipatu zuenez, "100 metro libre proba amaitzea asko kostatu zitzaion baina denbora asko dago oraindik arlo hori lantzeko."

## Txanponaren beste alde

Baina Haitz Mitxelenak ez zuen bere egun onena izan "oso astun eta uretan bultzadak lortu ezinik ibili zen igeri egindako 100 eta 200 tximelata probetan".

Eta "datozen asteetako lanaren ondoren Espainiako Neguko Txapelketan Santurtzin egindako marka hobetzea espero dugu," azpimarratu du Apeztegiak.

## Espainiako txapelketa

Izan ere, abenduaren 1ean, Itsaso Tolosa eta Haitz Mitxelena Palma de Mallorcan izango den, Absolutuen

Espainiako Neguko Txapelketan izango dira lehian.

Tolosa 200 bizkar proban izango da eta Mitxelena, aldiz, 200 tximelatan.

Honela, Estatuko txapelketan markak hobetzeko lan egingo dute aste honetan gazteek.

## Master taldea

Honetaz gain, Borja Apeztegiak jakin arazi digunez, Buruntzaldea IKT-eko master saila ere martxan da.

Masterrek astean hiru egunetan entrenatzen dutela aipatu digu, "ordutegi desberdinak dituzte batzuk goizean eta besteak arratsaldean".

Jendeak igeriketa taldean sartzeari beldurra kendu diola ere aipatu digu.

Honela aurten 30 pertsona lanean atal honetan, "iaz baino 15 gehiago dira. Taldea martxan jarri genuenetik, badira hiru urte, kopurua handitzen doa zorionez".

Eta aurten ohizkoak diren master mailako txapelketez gain, txapelketa gehiagotan parte hartu nahi dutela aipatu digu Borjak, "batzuk Espainiako txapelketan parte hartu nahi dute".

Gainera, beste klubekin hitz egin eta motibazio modura, liga bat sortzeko ahaleginak egingo dituztela aurreratu du Borjak.



Intzak ez du asteburu ona osatu, hirugarren mailara jaitsi dira seniorrak eta jubenilek bi partidu galdu dituzte.

matea horrelako partidatan eta honela bakarrik bukatu behar izan zuten Arteagak partida", azaldu digu Intzako arduradunak.

Emaizta honen ondorioz, zuzenean jaitsi da senior bikotea eta hurrengo denboraldian hirugarren mailan jokatuko du.

## Jubenilak Michelinen

Larunbata arratsaldean berriz, jubenilen txanda izan zen. Michelingo pilotalekuan hiru partidu jokatu ziren eta esan

daiteke Intzak ez duela asteburu ona osatu, jubenil mailako hiru partiduetatik bakarria irabazi baitzuten.

Lehen partidua buruz burukoa izan zen, eta Ander Rekondok ezin izan zuten Aurrera Saiaz I-eko pilotari tolosarra gailendu.

Bigarren partiduan gauzak hobeto egin zituzten Intzako Alexander Alvarez donostiarra eta Haritz Solano herritarra jubenilen II. mailako partiduan. Goierriko bikote urretxuarra mendean hartu zuten 22-8 irabazita, partidu txukun eta serioa egin ostean.

Arratsaldeko azken partiduan, Asier Arteaga eta Mikel Aranaguren galdu egin zuten Aurrera Saiaz-eko bikotearen aurka, I. jubenil mailan.

## Agenda

Osteguna 29, 19:30ean, Udaltzar aretoan



### Euskal gatazka formato txikian

"A fuego lento" antzerkia eskainiko du Glu-Glu antzerki taldeak. Galder Perezen antzezlanak azken hamarkadan euskal gatazka konpontzeko egindako sukalde lana aurkezten du formato txikian. Besteak beste, Arnaldo Otegi eta Jesus Egigurenek elkarrizketa sekretuak edo politikari sozialistek ETAko ordezkariekin Genevan eta Oslon izandako ezinbesteko negoziazioak taula gainera daramatza. Sarrerak internetez 5 euro, leihatilan 6 euro. 60 pertsonara mugatua.

### Bestelakoak

**BASAUNDIKO AUZO ELKARTEA**  
**Astelehena 26, 19:00etan**

Auzoz auzoko bileren laugarren faseko bilera izango da Basaundi eta Oriako bizilagunekin.

**UDAL EUSKALTEGIA**

**Astearte 27, 19:00etan**

Auzoz auzoko bileren laugarren faseko bilera izango da Zumaburu eta Goikale bizilagunekin.

**GARAIOETXEA IKASTOLA**

**Asteazkena 28, 19:00etan**

Auzoz auzoko bileren laugarren faseko bilera izango da Atsokabar auzoko bizilagunekin.

**SASOETA IKASTETXEA**

**Osteguna 29, 19:00etan**

Auzoz auzoko bileren laugarren faseko bilera izango da Sasotako bizilagunekin.

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Ostirala 30, 19:00etan**

Auzoz auzoko bileren laugarren faseko bilera izango da erdiguneko bizilagunekin.

### Usurbil

#### Hitzaldia

**SUTEGI KULTUR-ETXEA**

**Ostirala 30, 19:30ean**

Jon Sarasuaren hitzaldi kantaldia: "Leterekin Kantu Berbetan." Emanaldia kantaldiaren eta hitzaldiaren hibrido bat da, kantaldia mintzatua edo hitzaldi kantatua NOUA!-ren Kulturaldiaren barruko ekimena.

### Lasarte-Oria

#### Zinea

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Igandea 25, 17:00etan**

Haurren zinea atalean, "Diario de Greg 3: Dias de perros" filma eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.

**Igandea 2, 17:00etan**

Haurren zinea atalean, "Frankenweenie" marrazki bizidunetako film beldurgarria eskainiko da. Sarrerak leihatilan, 3,40 euro; internetez, 3 euro. Gaztelaniaz.

#### Musika

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Ostirala 30, 23:00etan**

"Erraiak" diskaren aurkezpena egingo du Xabier San Sebastianek. Rock&rolla eta doinu afrikarrak entzun ahalko dira emanaldian.

#### Diaporama

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Asteazkena 28, 21:30ean**

Oihana Beltranek Kanbodia eta Vietnamera egindako bidaia eta buruz hitz egingo du, Ttakun K. E.-k antolatzen duen Diaporama sortaren baitan.

#### Erakusketa

**JALGI KAFE-ANTZOKIA**

**Azaroan zehar**

Goizane Mendizabal-en argazki erakusketa berria ikusgai izango da ikusgai.

#### Jaialdia

**MANUEL LEKUONA KULTUR-ETXEA**

**Larunbata 01, 18:00etatik aurrera**

Jalgune elkarteak "Neregatik eta nere lagunengatik" lemapean arratsalde pasa zoragarri antolatu du. Jaialdia, batukada, ezkutaketa erraldoia, dantzaldia... izango dira.

## Herritarren txokoa

#### Herriraren elkarretaratzea

Hileko azken ostiralero bezala, azaroaren 30an Lasarte-Oriako Herrira mugimenduak kontzentrazioa egingo du 20:00etan Udaletxearen aurrean eta deialdia luzatu nahi die herritar guztiei parte hartu dezaten.

#### Odol ateratzeak

Hileroko azken astelehenero bezala, odol ateratzeak egingo dituzte Osasun Zentroan gaur, azaroaren 26a, arratsaldeko 17:30etik 21:00etara. Anima zaitzete, odola ordezkaezina da eta odol falta dago!

#### Aterpeko Loteria

Aterpea Merkatarien Elkarteak Gabonetako Loteria jarri du salgai. Loteriako txartelak elkartea osatzen duten denda edo komertzioetan daude eskuragarri.

#### Loteria eta barrikotea

Lasartearra elkarteak bazkide eta elkarteko lagunei gogora arazten die, Gabonetako Loteria salgai duela. Loteria txartelak eskuratu nahi dituzten herritarrek elkarteko bulegora, Erribera kalea 10 atzealdea, hurbildu

behar dira astelehenetik ostiralera 18:00etatik 19:00etara.

Era berean, abenduaren 1ean ohiko barrikotea antolatu duela jakitera ematen du. Izena emateko azken eguna azaroaren 26a da.

#### Euskararen 8. Maratoian aurkitutako gauzak

Euskararen 8. Maratoia amaitu eta garbiketa lanetan, honako gauza hauek aurkitu dira: jertse beltza, deuchland idatzia duen sudadera bat eta aterki gris bat. Gauza hauen jabeak Ttakun elkartetik hurbil daitezke jasotzera.

#### Korrika egiteko talde amateurra

Lasarte-Orian korrika egiteko talde amateurra sortu nahi da. Lehenengo urratsak!! Hitzordua, ateri dagoen astelehenetan 20:00etan Hipodromoko zubian. Barrazkilo eta bareak animatu!

## Sarean

### Android euskaraz

Euskalzale talde batek android euskaraz bloga jarri du martxan, [androideuskaraz.aktimg.eu/blog](http://androideuskaraz.aktimg.eu/blog). Honetan Android euskaratzeko ematen ari diren pausoen berri ematen dituzte.

Blogean azaltzen dutenez, helburua Android Jelly Bean 4.1.1. azken bertsioa ahalik eta arinen euskaratua izatea eta itzulpenak google-eko proiektuan txertatu ahal izatea da. Era honetara, konpainia desberdinek Android bertsioak euskaraz jarri ahal izateko aukera eman dezaten.

Izan ere, Android sistema 41 hunkuntzatan erabiltzeko aukera dago, horien artean aurkitzen da katalana.

Horregatik, blogean aipartzen dutenez, katalanekin harremanetan jartzea izan zen eman zuten lehenengo urratsa. Google-kin ere jarri ziren harremanetan eta honek era ofizialean ez duela euskara txertatzea aurreikusten azaltzen dute. Baina euskaraz nahiez gero, itzulpena balditzeko atea irekiak uzten dizkie Googlek.

Samsung eta Sony-Ericsson mugikorrek euskarazko itzulpena ateratzen dute. Taldeko kideak hau lortzen saiatzen dira baina ezin dute.

Beraz, itzulpena egiteko pauso teknikoak aztertzen hasi eta horretara jarri ziren.

Itzulpena egitea irekia da eta lan honetan lagundu nahi duenak izena emateko aukera ere badu blogean. Taldeak dioen bezala, "auzolanean egiten badugu errazagoa izango dela pentsatzen dugu".

Dagoeneko aplikazio batzuk euskaratu dituzte eta blogean itzulpenak nola egiten diren ere ikusi daitezke.



**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info



Bixente eta Oihana Beltran Aita eta alaba bidaiazaleak

# “Europa eta AEBra begira jarrita daude Vietnam-en”

*Kanbodia eta Vietnam lotu ditu hilabete osoko bidaia ikusgarrian Oihana Beltranek Bixente Beltran mendizaleak asko gozatu du Kanadako parke naturaletan eta Alaskan*

**Abentura eta bidai zaleak dira Bixente eta Oihana Beltran aita alabak. Bixente Alaska eta Kanada aldeko leku hotzetan ibili da. Oihana alabak Vietnam eta Kanbodiako leku epelagoak bisitatu ditu. Biek herrialde hauetan egin duten ibilbidearen argazkiak erakutsiko dituzte asteazkenean Jalgi Kafe-antzekian 21:30ean.**

**Nerea EIZAGIRRE**

**K**anbodia eta Vietnam bisitatu ditu udan Oihana Beltranek eta “hango gerra-bortizkeria argazkien kalitate onak kolpe handiagoa eragiten du ez direlako orain dela ehun urteko kontuak”. Bestalde, bi herrialdeko kostaldea eta mendialdeko arroz-oroak ere ikusi ditu.

## Nolatan joan zinen Kanbodia eta Vietnam-era?

Duela hiru urtetik saiatzen naiz nire oporraldian bidaia handi bat egiten, egunerokotik deskonektatzeko eta gustatzen zaidalako ere bai. Azken urtean, Indiara joan nintzenez, aurten Afrikara joateko asmoa nuen, hegaldia aurrez ikusita neukan, baina bere prezioa igo egin zen eta erabaki nuen aurreko urteko bidaiari lotuta Vietnam eta Kanbodiara joatea. Motxila hartu eta abiatu egin nintzen.

## Beraz zeneraman bakarra hegaldiaren txartela zen?

Bai, joan eta etorriko hegaldia eta motxila, besterik ez.

## Eta zer moduz moldatu zara?

Ondo, egia esan, Tailandia, Kanbodia eta Vietnam, hiru herrialdeak, turismoaren aldeetik oso ondo prestatuak daude jada, oso erraza egin zait bertan mugitzeko, hizkuntzaren aldetik, nire ingeles bereziarekin aurrera egiten nuen, ulertu nahi zaituenak ulertzen zaitu eta ostatuen aldetik oso prestatuak daude. Beraz arazorik ez dut eduki.

## Zer egin zaizu deigarriena?

Asiako beste herrialde batzuetan erlijioak markatzen du eguneroko bidea. Han ez, gerraren ondorioz badaukate hutsune bat beraien historian, batez ere Vietnamen. Europari begira jarrita daude edo kontraesana badirudi ere Amerikako Estatu Batuetara begira daude.

## Zer egon zara hiriburu handietan edo herrirka txikietan?

Hilabete osoko bidaia izan da, eta beraz denetik izan dut, aurre-ikusita nuen ibilbide bat, eta saiatu naiz hori egiten, baina, bai, hiriburu handietaz gain, herri txikietan egoteko denbora ere eduki dut.

Kontrastea. Vietnam eta Kanbodiako kostan turismoa bultzatzen da, baina gero Txina eta Laosekin mugan, arroz soroz betetako mendi izugarriak eta horietan lanean ari direnak ikusten dituzu.

## Vietnamen gerratearen ondorioak ikusten dira?

Cu Chi-ko zuloetan harrigarria da argazkiak oso egungoak direla. Hor barruan sartu eta hiru hilabete egoten zirela pentsatzea, eta ez orain dela ehun urte, baizik eta orain dela 30 urte... egia esan, kalitate oneko argazkien momentuko eragina oso handia da. Kanbodian ere Phnom Penh hiriburuan Pol Pot-en genozidioaren argazkiek kolpe eta zirrara handia eragiten dute berriki direlako. Eta isiltasun handia arnasten da oraindik Phnom Penh hiriburuan edo Cu Chi-ko kobazuloetan.

## Zer ikusiko da diaporaman?

Bidaia hasieratik bukaerara. Kendu behar izan ditut Bangkok hiriburuko eta herri txikiren bateko argazkiak, luzeegia ez izateko, baina, batez ere, ibilbidea eta nire esperientzia ikusiko da. Ikusleak sentsazio batzuek behintzat jasoko ditu.

## Zer azpimarratuko zenuke Kanbodiatik, zer Vietnamentik?

Kanbodiatik azpimarratuko nuke oraindik esplotatu gabeko iparraldeko aldea. Oso naturala da, oso basatia, eta bertako jendea oso atsegina.

Eta Vietnamentik daukaten garapena, nik espero nuen baino garatuagoak daude, bideratuta daukate turismoa eta bide horretatik bizimodua.



Kanbodia eta Vietnam-eko kostaldea baino gehiago gustatu zaio Oihana Beltran-i barruko aldea, Txina eta Laoseko muga batez ere.



## “Parke zoragarriak daude Kanadan”

**B**ixente Beltran Kanada eta Alaskan egon da naturaz gozatzen. Kanadako parke naturaletan mendi, laku eta arroilak ikusi zituzten eta Alaskan paisaia izoztuak.

## Zergatik joan zineten Kanada eta Alaskara?

Betidanik neuzkan buruan, txikitatik pelikuletan ikusita, hango paisaia, laku eta mendiak. Aukera sortu zen Donostiako agentzia batek antolatutako bidaiara joateko, libre geunden, elkartu, izena eman eta joan egin ginen.

## Non egon zarete?

Gu Kanadako mendebaldera

joan gara, Rocky Mountain ingurura. Hegazkinez Calgary-ra joan ginen, lautadan dago baina mendietatik 60-70 kilometroa, eta autobusez, Alberta probintziako lau parke natural bisitatu genituen. Banff-en errepidean hartza, laku eta arroila zoragarriak ikusi genituen. Gero, Jasper parke eta herriko izotzaren bidea deiturikoan mendi eta glaziarrak.

Handik, Sun Peaks, eguzkiaren tontorra izeneko eski estazio eta herri ikusgarria joan ginen, eta ondoren, itsaso aldera jaitsi, errekek egingdako bidetik Vancouver hirira. Stanley Park toki zoragarria

ondoan du eta gau eder bat ere pasa genuen hondartzaren inguruan milaka gazte dantzatan eta musika jotzen.

Hor bukatu zen lehen parte. Itsasontzi handi bat hartu genuen, Alaskan kruzero edo itsas bidaia egiteko.

## Naturazalea izanik asko disfrutatuko zenuen?

Bai, han ez dago ia herririk, dauden etxeak egurrezkoak dira, oso politak. Indioak ere ba omen daude, baina ez genituen ikusi, ez genuen hartuemanik izan. Gidariak esan zigun badituztela bere eskubi-deak, bere telebista eta bere unibertsitatea baina ez direla integratzen. Hala ere, nork integratu behar du non?

Pena bat badaukat, ezin botak jantzi eta mendira joan. Horrelako bidaiaren erlojuak agintzen du. Iritsi eta esaten dizute: ordu erdira berriro autobusera. Beraz ahal den ondoen pasatzen duzu, argazkiak atera...

## Deigarriena zer izan da?

Natura bera. Han parkeak animalientzat dira. Ez da inor bizi. Autobideetan pasabideak daukate animalientzako. Non ikusi duzu hori? Askok zaintzen dute.

Milaka eta milaka autokarabana ikusten dituzu Rocky Mountain inguruan. Zenbat kanadiar erretiratu karabana hartu edo alokatu eta bazter zoragarri horiek ikusten, beste era batera, poliki poliki! Horrek izugarri harritu nau.